

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren apirilaren 3ko 76/2023 Foru Dekretua, Arabako Batzar Nagusietarako hauteskunderen deialdia

Arabako Lurralde Historikoko Erakunde Antolamenduari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 24.1. artikulua xedatzen du diputatu nagusiari dagokiola Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deialdia egitea eta horien datak eta epeak udal hauteskunderekin bat egin behar dutela.

Era berean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako batzar nagusietarako hauteskunderen buruzko Eusko Legebiltzarraren martxoaren 27ko 1/1987 Legeak 7.1 artikuluan xedatzen duenez, lurralde historikoko diputatu nagusiari dagokio Arabako Batzar Nagusietarako hauteskunderen deialdia egitea, hauteskunde horien data eta epeak eta udal hauteskunderenak berdinak izanik.

Lurralde historikoko 51 batzarkideak hiru hauteskunde barrutietako biztanle kopuruaren arabera banatzen dira, Batzar Nagusietarako Hauteskunderen Legearen 3.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Lege horren 7.3 artikulua xedatzen duenez, deia egiten duen dekretuan, hauteskunde barruti bakoitzean hautatu behar diren batzarkideen kopurua ezarriko da, soberako kopurua hondar handien arabera zuzenduz, 3.2 artikulua dioenari jarraiki.

Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 42.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, lau urtean behin egingo dira toki hauteskunderak; hain zuzen ere, dagokion urteko maiatzaren laugarren igandean. Deia egiten duen dekretua, berriz, egun horren aurreko berrogeita hamabosgarren egunean emango da eta eman ondoko egunean argitaratuko.

Oinarritzat hartuta biztanleen kopuru ofizialak, Estatistikako Institutu Ofizialak argitara emanak 2022ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren berrikuspenak ematen dituen biztanle zifrak ofizialtzat jotzen dituen abenduaren 20ko 1037/2022 Errege Dekretuak 2. artikuluan jasotakoa betez, eta aipatutako aginduak ikusita, dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deialdia egiten da. Hauteskunderak 2023ko maiatzaren 28an egingo dira udal hauteskunderekin batera.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoan 51 batzarkide hautatu behar dira, Eusko Legebiltzarraren 1/1987 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren lurralde barrutien artean honela banatuak:

a) Vitoria-Gasteizko Kuadrillako hauteskunde barrutia, Vitoria-Gasteizko udalerriak osatua: 39 batzarkide.

b) Aiako Kuadrillako hauteskunde barrutia, Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondoko udalerriek osatua: 5 batzarkide.

c) Gorbeialdeko Kuadrilla, Arabako Lautadako Kuadrilla, Añanako Kuadrilla, Arabako Mendialdeko Kuadrilla eta Biasteri Arabako Errioxako Kuadrillako hauteskunde barrutia, Agurain, Alegria-Dulantzi, Añana, Aramaio, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Bastida, Berantevilla, Bernedo, Bilar, Burgelu, Donemiliaga, Elciego, Erriberabeitia, Erriberagoitia, Eskuernaga, Gaubea, Harana, Iekora, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Kanpezu, Kripan, Kuartango, Lagran,

Laguardia, Lantziego, Lantaron, Lapuebla de Labarca, Legutio, Leza, Mañueta, Moreda Araba, Navaridas, Oyon-Oion, Peñacerrada-Urizaharra, Samaniego, Urkabustaiz, Zaldondo, Zanbrana, Zigoitia eta Zuiako udalerriek osatua: 7 batzarkide.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN